


# Nola sor ditzakegu matematikako ikaskuntza egoerak?

Ikaskuntza egoerak deitzen diegu esanguratsuak diren eta ikasleen gaitasunak garatzen laguntzen diguten galderari, egoerei, problemei edo jarduerari.


Bestela esanda, ikaskuntza egoerak ikasteko **aukerak** sortzen dituzten egoerak dira.



Ikaskuntza esanguratsua eta kompetentzietan oinarritua izan dadin, irakasleen lana ezinbestekoa da, baina ezin ditugu baliabideak eta zereginak soilik erabili horretarako. Ez dago errezeta magikorik! Irakasleak saioan zehar **interpretatzen** duena oso garrantzitsua da ikasleak gelan gertatzen denarekin konektatu, eta parte hartzeko gogoa izan dezaten.

Saio guztietan nahi dugu hori gertatzea, ez soilik matematikakoetan. Hainbat testuingurutan (proiektuka lan egitean, jarduera aberatsak egitean edo zeregin sistematiko jakin bat egitean) ikasteko aukerak nola sor ditzakegun azalduko dizuegu adibide batzuen bidez.

## METODOLOGIAK EDO GELAKO TESTUINGURUAK



### PROIEKTUKA LAN EGITEA

Ikasleak helburu jakin bat duten diziplinarteko jardueretan aritzea da. Horrela, banakako trebetasunak bultzatuko ditugu, eta taldeka lan egiteak ere errazago sustatuko ditugu trebetasun horiek. Gakoetako bat ikasleak kontzeptu berriak deskubritzera motibatzea da, modu esanguratsuan ikas dezaten.

**Adibidez: Paperezko hegazkin baten hegaldia aztertzea.**




### Makroikuspegia

Jardueraren diseinuari dagokio bere osotasunean. Gelan egiten dugun saioaren ikuspegi orokorra da, eta helburua ikastea da.



### Mikroikuspegia

Egoeraren kudeaketa da, une bakoitzean zer-nolako galderak egiten ditugun, ikaskuntza sakonagoa izateko aukera gehiago sortzeko.



### JARDUERA ABERATSAK

Zoru baxuko, sabai altuko eta horma zabaleko zereginak deitzen diegunak dira. Ikasleek gai izan behar dute jardueraren helburu nagusia lortzeko eta, horrez gain, beste eduki batzuekin loturak ezarri eta galdera berriak egiteko, sakontze aldera.

**Adibidez: Zatikiak.**



### JARDUERAK ETA GALDERA ZEHATZAK

Zeregin jakinak dira, eta edukiak eta dagoeneko finkatu ditugun prozesuak aplikatzea eskatzen dute. Jarduerak zein galderak aukera ematen digute trebetasun matematikoak hobetzeko, kontzeptuak ulertzeko eta finkatzeko eta arintasuna garatzeko.

**Adibidez: "Aurkitu ekuazio honen ebakidura-puntuak".**

